

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

Kultura

10. ildoko dirulaguntza-deialdia -2020an egitekoak diren kultura-proiektuetarako eta finkatutako ekitaldi eta jaialdietarako dirulaguntzak- ebaztea

2020ko otsailaren 24an argitaratu ziren ALHAOn 10. ildoko dirulaguntzak -2020an egitekoak diren kultura-proiektuetarako eta finkatutako ekitaldi eta jaialdietarako dirulaguntzak- emateko deialdiaren laburpena eta berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 7an egindako ohiko bilkuran onetsiak.

20 egun balioduneko epea zegoen eskabideak aurkezteko, eta 2020ko martxoaren 24an bukatu zen. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak alarma-egoera deklaratu zuen, eta bertan behera geratu ziren, eta etenda, administrazio-epeak. Maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuak bosgarren aldiz luzatu zuen alarma-egoera, 2020ko ekainaren 7ko 00:00ak arte, eta etendako administrazio-epeak ekainaren 1etik aurrera berrabiaraztea ezarri zuen. Epeak eten zirenean sei egun geratzen ziren epea amaitzeko, eta ekainaren 1ean berrabiatu zirenez, ekainaren 8an bukatu zen dirulaguntza eskabideak aurkezteko epea. Epe berri hori udalaren webgunean argitaratu zen, eta interesa izan zezaketen erakundeei jakinarazi zitzaien.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta dirulaguntzei buruzko udal ordenantza aplikatuz, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran onetsitako Vitoria-Gasteizko Udalaren 2020ko dirulaguntzetarako deialdiari jarraiki, balorazio-organoa bildu egin da, eta kontzeptu bakoitzerako aurkeztutako eskabideei dirulaguntza emateko edo ukatzeko proposamena egin du.

Kontuan izanik indarrean dagoen gastuen aurrekontuan nahikoa zuzkidura badagoela 231203.3341.489.33 partidan, Hezkuntza eta Kulturako zinegotzi ordezkariak, honako erabaki-proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari, alkateak eskumenak eskuordetzeari buruz 2020ko otsailaren 24an mandako dekretua baliatuta:

Erabaki-proposamena:

Lehena. Ez onartzea honako entitateek aurkeztutako eskabideak, biek 2020ko ekainaren 11n aurkeztu zituztelako, eta horrenbestez, epez kanpo.

- Asociación cultural ecuatoguineana Ceiba kultur elkarte
- Atiza komiki marrazkilarien elkarte.

Bigarrena. Ondoko elkarteei dirulaguntzak ematea onestea, zehazten diren zenbatekoetan:

Erakunde eskatzailea	Proiektua	Puntuak	Emandako aurrekontua
Kultura kalean	Korterraza 2020	98	14.300,00 euro
AEFAT, Asociación española familia ataxia telangiectasia elkarte	Aitzina Folk 2020	84	12.667,00 euro *A aurrekontua eginez gero
Play Gasteiz	Gasteiz ,zinema hiria	79	10.000,00 euro
El mono habitado	150 gramo jaialdia	75	10.000,00 euro
Altraste danza	Danzalava 2020	74	9.450,22 euro
Inmersiones kultur elkarte	Inmersiones 2020	73	9.200,00 euro
Sinkro musika elkarte	XVII. Bernaola jaialdia	71	8.400,00 euro
Zinhezba kultur elkarte	Gazte film fest	71	8.400,00 euro
Haz kooperativa elkarte txikia	Al margen del deterioro	69	7.600,00 euro
Kultur act elkarte artistiko eta kulturala	Emart 2.0.	69	7.540,00 euro
Jimmy Jazz elkarte	Gazte talent	68	4.000,00 euro
Eduardo Hernando Vilarrodona	Pixkat, una pizca de teatro	68	7.200,00 euro
Parasite kolektiboa	Zurrunbilo 2020	67	6.000,00 euro
Hunkitu arte	Poetak maiatzean, 2020	66	6.400,00 euro
Erakusmeta	Zas Kultur espazioa	66	6.400,00 euro
Kultur soleil	Zakatumba 2020	66	6.400,00 euro
Guerrilla kulturala elkarte	Kaleak hartu!	62	4.800,00 euro

Arabako Jaiotzazaleen Elkartea	2020ko egitaraua	61	4.400,00 euro
Factoría de fuegos	Noche skratxe gaua #14	58	3.300,00 euro
Libros y juguetes Cejota	Gasteizko I. ipuin jaialdia	57	2.737,94 euro
Illiana Ross González	Piano artean	57	2.950,00 euro
David Elejalde	Aztarna beltza fest	56	2.600,00 euro
Sofía Martínez Ramírez	Edición CD sinkro records	52	1.200,00 euro
Kikute elkartea	Arabaclick	50	500,00 euro
			156.445,16 euro

	Erakunde eskatzailea	Proiektua	Puntuak	Emandako aurrekontua
1	Biztanle afroamerikarren Afro elkarte	Kultur arteko XXXV. astea, "Begiradak"	70	3.500,00 euro
2	Raíces de Europa kultur elkarte	XVI. jardunaldi europarrak	66	4.000,00 euro
3	Jare dantza taldea	2020ko programa	60	1.190,00 euro
4	Adurtza dantza taldea	Adurtza batuz IV	58	2.799,00 euro
5	Estibalizko ama elkarte	"Arabako Erromanikoa" interpretazio zentroa	50	1.694,00 euro
				13.183,00 euro

Hirugarrena. Eskatutako dirulaguntza ezezteara ondoko entitateei, arrazoi hauek direla eta:

1) Berariazko oinarrietako 2.2 klausulan adierazitako kasua delako dirulaguntza ukatu zaien proiektuen zerrenda:

2. Deialdiaren xedea

2.2. Dirulaguntza jasoko duten proiektu kulturalak irekiak izan beharko dute, Vitoria-Gasteizen garatu eta gauzatu beharko dira, eta Vitoria-Gasteizko herritar guztiei zuzendutakoak izan beharko dute.

– Aritz López Gómez; biztanleria-sektore oso espezifiko bati zuzendutako proiektua izateagatik, eta ez biztanleria guztiari

2) Berariazko oinarrietako 11.2 klausulan adierazitako kasua delako dirulaguntza ukatu zaien proiektuen zerrenda:

11. Ez dira diruz lagunduko:

11.2. Helburu nagusizat ez kultura sustatu eta zabaltzea, baizik eta beste batzuk - sozialak, kirolaren arlokoak, erlijiosoak, politikoak, osasunaren arloak... dituzten proiektuak.

– A(R)TEA kultur elkarte

– Asociación Proarte vasco- Euskal Artealde elkarte

– TikTak Film Studio

– Asociación difusión TEDX Almendra Medieval elkarte

– FEDASOC: Erdi Aroko hiriguneko elkarten federazioa.

– Maitane Carballo Alonso

– Eguzki Donnellan Armengod

3) Berariazko oinarrietako 9 klausulan adierazitako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik dirulaguntza ukatu zaien proiektuen zerrenda:

9. Irizpide horiek aplikatzen direlarik, gehienez eskura daitezkeen 100 puntuetatik gutxienez 50 lortzen dituzten proiektuak aukeratuko dira.

1. kontzeptua:

– Raquel Mora Iturriaga. 32 puntu.

– Vitoria-Gasteizko 32. Jazzaldia elkarte 44 puntu.

– Metastasio kultur elkarte 32 puntu.

– Crisoul kultur elkarte 43 puntu.

4) Balioetsi gabeko proiektuak, covid-19aren ondoriozko osasun-neurriak direla eta ez delako gauzatzerik izan.

– Araña del rock producciones

– Euskadiko Antzinako Liburuen alorreko Enpresaburuen Elkarte.

Laugarrena. Bi zatitan ordainduko dira dirulaguntzak: lehenengo, dirulaguntzaren ehuneko 80 ordainduko da; gainerako ehuneko 20a, berriz, gastuak justifikatu ondoren ordainduko da, indarrean dagoen gastu-aurrekontuko 231203.3341.489.33 partidaren kontura.

Dirulaguntza honen xede diren proiektu guztiek diruz lagundutako jarduera egiten den unean indarrean dagoen araudian aurreikusitako osasun-neurriak bete beharko dituzte. Era berean, espazio publikoa okupatuz gero, Vitoria-Gasteizko Udaleko Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Sailak emandako baimen egokiak izan beharko dituzte.

Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldez aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, berriz, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 3an

Hezkuntza eta Kultura Saileko zuzendaria
FRANCISCO JAVIER GALVE BORJA